



Sexu erasoengatik atxiloturiko gizona aske utzi du epaileak

ZIZURKIL ▶ Epaketaren zain geratu da orain ustezko erasotzailea

ERASOA ▶ Ustez emakume bat sexu harremanak izatera behartu nahi zuen

SALAKETA ▶ «Indarkeria sexista arazo soziala» dela dio Bilgune Feministak ▶ 4

I. TERRADILLOS



Langile gehiago kontratatzea exijitu dute Correosekoek

TOLOSA ▶ Atzo elkarretaratzea egin zuten; «langileak ez kontratatzea» salatu dute ▶ 3

TOLOSA ▶

Abesbatzen Topaketa antolatu dute

Hilaren 27an ▶ 3

LEITZA ▶

Final-laurdenetan, Bengoetxea eta Abel Barriola aurrez aurre

Oinatz Bengoetxeak erraz irabazi zion asteburuan Mikel Goñiri (8-22) ▶ 7



“Natura bezain eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308
berria



FUTBOLA ▶



Hirugarren Mailako Tolosa CFko mutirik partidetako batean. M. SOROA

1-2 irabazi dio Tolosa CFk San Pedrori

Denboraldiko laugarren garaipena du hau Hirugarren Mailako taldeak

ERREDAKZIOA

Denboraldiko laugarren garaipena erdietsi zuen larunbatean Hirugarren Mailan jokatzeko duen Tolosak. San Pedro izan zuten aurkari eskualdekoek, eta 1-2ko emaitzarekin irabazi zuten. San Pedrok gol aukera ugari izan zituen, baina ez zuen jakin aprobetxatu. Biek ere partida irabazteko beharra zuten, sailkapeneko azken postuetan baitaude. Tolosakoek lehen zatian lortu zuten partida erabakiko zuten bi golak sartzea. Bi taldeek ere ez zuten gehiegi asmatu jokuan, eta 51. minutuan, San Pedrokoek gola sartzea lortu bazuten ere, jada beranduegi zen.

Garaipen honen ostean sailkapeneko 15. postuan dira Tolosa CFkoak. Hurrengo partida etxean jokatu dute, Laudio Sall.-en aurka.

Neskei dagokionez, erraz irabazi zuten eskualdekoek.

Usubilgoak izan zituzten aurkari, eta 0-10eko emaitzarekin irabazi zieten.

Beste taldeetan, hiruk irabazi egin zuten, bik galdu, eta beste horrenbestek, berdinketa lortu zuten. Lurraldekoan, 2-1 irabazi zioten Tolosakoek Mariñori. Jubenilen estatuko Ohorezko Mailan, berdinketa erdietsi zuten, P. Balsamaisoren kontra. Jubenilen Ohorezko Mailan jokatzeko duen Tolosako mutirik ere Mariño izan zuten aurkari, baina hauek galdu egin zuten, 5-1eko emaitzarekin. Kadeteen Ohorezko Mailan 5-0 irabazi zieten eskualdekoek Ordiziari. Kadeteen Lehen-dabiziko Mailan, berdinketarekin amaitu zen Tolosa eta Urnieta arteko norgehiagoka. Infantilen Ohorezko mailan berriz, Lengokoak izan ziren garaile, 3-0ko emaitzarekin. Azkenik, infantil txikien mailan, 4-1 irabazi zioten Kostkas B. M. Bihotzi.

ARETO FUTBOLA ▶

Laskorainek 6-0 garaitu du Usabalen, Portugaleteko Jarrilleros taldea

Partida honen ondoren, hirugarren postuan dira tolosakoak

ERREDAKZIOA

Aurreko jardunaldian jasan-dako porrotaren ostean, «berbiziko» garrantzia zuen Laskoraintzat berehalaxe erre-akzionatzeak, arduradunek adierazi zuten. Ederki egin zuten lana, izan ere, horitxoek Portugaleteko Jarrilleros taldeari 6 eta 0 irabazi zien.

Larunbateko partida «areto futbolak azken denboraldietan bizi duen errejimen aldaketaren ikur» bat izan zen. Alde batetik, Nazional A mailan urte asko jokatu dituen Jarrilleros zegoen, beste aldetik

berriz, Laskoraineko taldea. Partidak bi denbora desberdin izan zituen. Lehenengoan oreka izan zen nagusi, gol aukera gehiegirik gabe bi taldeek zuzen jokatu baitzuten, oke-arririk gabe, «defentsan sendo eta erasoan patxadaz, baloi galerak ekidinez eta jokaldiak luzatuaz». Bigarren erdian orde-oreka apurto zen eta bi taldeen arteko aldea areagotu egin zen, tolosarrek sei gol egin zituztelarik.

Estrategian Barriolak sartu-tako golak Jarrillerosekoak arriskatzera bultzatu zituen, «ausardiara» alegia. Saldias

kapitainaren bigarrenak Jarrillerosekoen ausardia ausarke-rian bihurtu zuen. Ordudik aurrera horitxoek «maldan behera» jokatu zuten, hori bai aurrez landutako «joko bikai-na» erakutsiaz. Otxoak bi gol sartu zituen, abiadura handiko jokalaria dela erakutsiz eta Saldias kapitainak, beste bi hamar metrotatik.

Garaipen honekin, Laskorain hirugarren kokatu da sailkapenean eta datorren aste-buruan lau jardunalditan lau garaipen pilatu dituen Iturri-riondo liderrari egin beharko dio bisita.

HIRIGINTZA ▶

Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza tasatuen lehen zozketa izango da bihar

Leidor antzokian egingo dute zozketa, 11:00etatik aurrera

ERREDAKZIOA

Bihar 11:00etan hasita, Leidor antzokian Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza tasatuen lehen zozketa egingo dute. Orotara, 292 bizitza zozketatuko dira 565 eskatzaileen artean.

Zozketa honetatik aukeratu-entuen zerrrenda eta itxaron zerrrenda aterako dira. Baldintzak betetzen dituzela egiaztatu eta gero, beste zozketa bat egingo da etxebizitzak adjudikatze-ko. Beraz, biharko hautatuak ez dira izango adjudikatario, harik eta Toki-Babeseko etxebizitzak adjudikatze-ko oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen diren ikusteko behin betiko azterketa egin



Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzaren planoak. HITZA

arte. Beraz, adjudikatario izango dira zozketan hautatuak izan eta ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenak.

Bigarren zozketa horretan, kontuan hartuko da zenbat ki-

dek osatzen duten bizikidetzau-itate bakoitza. Denera, Voith-Gorostidi eremuko auzo-ak 743 etxebizitza izango ditu: 148 babes ofizialekoak, 319 ta-satuak eta 276 libreak.

BERRIaren edizio digitalean diseinatzaile/programatzaile lanpostua betetzeko pertsona bat behar da.

Erreferentzia: 200710 EH-DP

Honako ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio hizkuntzekin eskarmentua izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- Sei hilabeteko kontratua (luza daiteke).
- Lanean berehala hastea (azaroan).

Bidali curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, urriaren 26a baino lehen.

BANAKETA ENPRESA batek banatzaileak behar ditu Donostian, Urolan eta Tolosan.

Lan baldintzak:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Deitu lehenbailehen telefono honetara: 943-30 43 41. Edo bidali zure datuak helbide elektronikora honetara: lanpoltsa@etxeraino.net.

www.tolosaldekohitza.info

zure albisteak uneoro sarean

www.tolosaldekohitza.info

MUSIKA ▶

Abesbatzen Topaketa asteburuan

Interpretazio koraleko tailerra ere antolatu du Abesbatzen Federazioak



Loic Pierre. HITZA

ERREDAKZIOA

Pasa den urtean Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak, Tolosako Ekinbide Etxearekin elkarlanean Tolosako Abesbatzen Lehiaketa aurretik egin ohi zen kontzertua berreskuratu zuen, eta aurten ere larunbatean, hilaren 27an, Topaketa antolatu dute «Federatutako abesbatzen artean baterako ekintzak sustatzearren».

Aurten parte hartuko duten abesbatzak Irungo Ametsa Gazte Abesbatza, Ordiziako Oroith Abesbatza eta Pasaia Abesbatza izango dira. Ekitaldian, hiru abesbatzek beraien errepertorioa eskaintzeaz gain, guztiek elkarrekin abesti

batzuk kantatuko dituzte Javi Bustoren zuzendaritzapean. Tolosako San Frantzisko elizan egingo dute Topaketa, eta 20:30ean hasiko da.

Interpretazio korala

Bestalde, Abesbatzen Federazioak interpretazio koraleko tailer bat antolatu du asteburu honetarako, hilaren 27 eta 28rako. Tailer hau Mikrokosmos ganbera-koruaren sortzaile den Loic Pierre zuzendaria eskainiko du. Eduardo Mocoeroa Udal Musika Eskolan izango da, larunbat goizean 10:00etatik 14:00etara, larunbat arratsaldean 16:00etatik 19:00etara eta igande goizean 10:00etatik 14:00etara.

Hau izango da errepertorioa: *Après un rive* (Gabriel Faure); *Rosignol du bois sauvage* eta *Et j'avais quinze ans* (Loic Pierre); *Kilden* (Grete Helgerod); *Hobüse-mang* (Veljo Tormis); *Lux aurumque* (Eric Whitacre).

Tailerra egin nahi dutenek 40 euro ordaindu beharko dute (80 euro Gipuzkoako Abesbatza Federazioko kide ez direnek), eta izena emateko 943 53 69 73 telefono zenbakira deitu ahaliko dute.

NEKAZARITZA ▶



Pasa den astean batzarra aurkezteko egin zuten agerraldia. H. BELLOSO

«Sektoreak bizi duen egoera aldatzeko» batzorde berri bat osatu du EHNEk

Bailara desberdinetako ordezkariekin eratu dute batzordea

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako EHNE Sindikatuek ezohiko batzarra burutu zuten herenegun Tolosako Musika Eskolan. «Sektoreak bizi duen egungo egoera kontuan hartuta, aldaketa bat egon dadin» batzorde bat osatu dute, eta horren aurkezpena egitea izan zuen xede batzarrak.

Laurogehi baserritarrez osaturiko batzarra izan zen eta sindikatutik positibotzat jo dute parte-hartzea. Lau urtez behin egiten den Kongresuaren prestaketa lanak, eztabaiden nondik norakoa eta funtzionamendua izan ziren, besteak beste, mahai gainera atera zituzten gaiak.

Eurkal Herriko Nekazarien Elkartearen ustez, «sektoreak

bizi duen egoera larria da, eta ikusi dugu orain arteko eztabaidek zein ekimenek goia jo dutela; hala, zerbait berria, batua eta alternatiboa proposatzeko unea iritsi zaigula deritzogu». Ez ohiko batzar honetan, «bai baseritarrei begira zein gizarteari begira aldaketa ematen joan daitez» bailara desberdinetako ordezkari osaturiko batzorde baten aurkezpena egin zuten.

EHNEren ustetan, «batzorde honek erronka gogorra du datozten hiru hilabete hauetarako. Hiru hilabete diogu izan ere datorren urte hasierarako aurreikusten baita EHNE Sindikatuen V. Kongresua».

Batzordearen eraketa egin dute, eta hemendik aurrera, landuko dutena, «urte askota-

ko lanen balantzea, Nekazaritza eredu eta Barne Antolaketa izango dira», eta honen guztiaren inguruko eztabaida, hausnarketa eta berregituratze lanak izango direla lehen-gai azaldu dute sindikatutik.

Batzordea, esan bezala, bailara desberdinetako ordezkari osatu dute. Hala, Tolosakoa Aitor Usandizaga izango da, eta hauek dira gainerakoak: Jabier Lertxundi (Kosta), Jose Inazio Azpillaga (Urola), Kepa Urreaga (Beterri), Lorea Katarain (Goierrri), Asier Osnalalde (Goierrri Garai) eta Enrike Gisasola (Deba Behea). Deba Goienako ordezkaria ez dute oraindik aukeratu. Egungo EHNEko ejekutiba, bestalde, Begoña Aristik eta Eneko Dorronsorok osatzen dute.

EKONOMIA ▶



Langileak ez kontratatzea salatu dute

I. Terradillos ▶ Gipuzkoako Correosen ordezkari dute sindikatuek (CCOO, ESK, UGT, LAB eta ELA) konzentrazioa egin zuten atzo Tolosako Correoseko egoitzan, zuzendaritzari bajaran dauden langileak ordezkatzeko langile gehiago kontratatzeko exijitzeko. Egoera honen aurrean, «gereziaz datozten egunetan kontratazio nahikorik iragartzen ez badu», sindikatuek abenduan oraindik zehaztu gabe dituzten lanuzte deialdiak egingo dituzte-larri iragarri dute. i.t.

ANOETA ▶

**Batzarra gaur
Alkartasuna
biltokian**

Azaroaren 25ean 14. urteurrena beteko du Alkartasuna biltokiak eta horregatik, egun horretako ekitaldiak antolatzeko, batzarra egingo dute gaur biltokian bertan, 19:00etan. Bestalde, Alkartasunaren memoria lantzeko ikastaroa egiten ari dira, asteartean, 14:45etik 16:45era. Bazkideren batek parte hartu nahi badu Tolosako Helduen Heziketa Iraunkorrarekin jar daiteke harremanetan, 943 67 26 60 telefono zenbakian. Horretaz gain, Gabonetako Espainiako Loteria saltzen ari dira Alkartasunaren. Zenbakia 05.431 da eta salgai egoten da 18:00etatik 20:30era.

ANOETA ▶

**Kun mendiari
buruzko
diaporama, gaur**

Anoetako Mendi Astearen baitan, gaurkoan diaporama bat emango dute herriko bi mendizalek. Iñigo Gonzalez eta Iban Yurrita anoetarrek *Kun mendia (India)* izeneko emanaldia emango dute. 19:00etan izango da, udaldegian.

ZIZURKIL ▶

**AHTren kontrako
bilera antolatu
dute bihar**

Bilera antolatu dute bihar AHTren aurka Zizurkilgo Kultur Etxean. Bilera irekia da eta 19:30ean izango da. Antolatzaileek, hainbat galdera egin dituzte bilera iragarritzen duen kartelean: «Zer datorkigu gainera? Gelditzeko gaila gara? Nola gera dezakegu? Zer oztopo jar ditzakegu? Nola joka dezakegu?».

TOLOSA ▶ KULTURA

**Bukatu da San
Estebango
Kultur Astea**

Erredakzioa ▶ San Esteban auzoko Kultur Asteari amaiera eman zioten herenegun. Ekitaldi ugari egin zituzten azken egunean, tartean auzokideen arteko bazkari jendetsua. Horrez gain, besteak beste, toka txapelketa eta auzoko base-rriei bisita trikitixaz alaituta izan ziren egindakoak. A. OTEZABAL

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

Sexu erasoengatik atxilotu duten gizona aske utzi du epaileak, epaiketaren zain

Emakume bati ustez sexu harremanak izatera behartu nahi izan zuten

IMANOL GARCIA

Ertzaintzak herenegun gauean 51 eta 45 urteko bi anai atxilotu zituen Zizurkilen, lehenengoari askatasun sexualaren kontrako ustezko delitu bat eta bigarrenari biktima laguntzera joan zen senarra labana batez mehatxatzea leporatuta. Bi atxilotuak Tolosako epaitegian izan ziren atzo goizean deklaratzeko eta epaileak aske utzi zituen, epaiketaren zain. Atxilotuei ez dizkiete kautelazko neurririk jarri.

Ustezko erasotzailea eta mehatxatzailea senar-emaztearekin bizi ziren Zizurkilen, etxebizitza berdinean. Emakumeak bere haurrari bularra ematen ari zitzaionean, atxilotuta izandako gizona, eta etxebizitzaren jabea dena, logelan sartu eta emakumeari sexu harremanak izatea proposatu zion,

Ertzaintzak azaldu duenez. Emakumezkoak ezezkioa eman zion eta liskarrean hasi ziren. Horretan, ari zirela, gizona-koak jertsea urratu zion, eskote-tik.

Biktima oihuka hasi zenez, senarra laguntzera joan zitzaion eta bi familietako kideak liskarrean hasi ziren. Ustezko erasotzailearen anaiak 17 zentimetroko xafra duen sukalde-ko laban bat ateratu zuten eta horrekin mehatxatu egin zuten, Ertzaintzak jakinarazi duenez.

Abisua jaso ondoren, Ertzaintza etxe horretara heldu zenean, biktima zain aurkitu zuten agenteek kalean, senide batzuk lagunduta eta besoetan hainbat hilabeteko neskatua zuela. Ertzaintzari eman zioten informazioaren arabera, familiak alokairuan hartuta dauka etxebizitza hori.

Ertzainek bi anaiak etxebizitzako eskaileretatik jaisten aurkitu zituen. Salaketaren aurrean, agenteek atxilotu egin zituzten, bata sexu askatasunaren kontrako ustezko delitu bategatik eta bestea arma zuri batez ustezko mehatxu delitu bategatik. Etxeko sukaldean, ertzainek gertaeran ustez erabilitako labana atzeman zuten, frogara gisa.

Bilgune Feministak salatu du

Tolosaldeko Bilgune Feministak gogor salatu du «igande iluntzean Zizurkilen emakume

batek jaso zuten sexu erasoak». Gaineratu dutenez, «zoritxarrez ez zen bakarrik izan, Ondarri, Gasteiz eta Bergaran ere beste emakume batzuren aurkako sexu jazarpena eman da azken orduotan». Bilgune feministak azaltzen duenez, «komunikabideen bidez jakin ahal izan ditugunak dira eraso horiek baina ezkutuan eta egunerokotasunean beste hainbat eraso jasaten ditugu emakumeok. Hauek denak ez dira kasu isolatuak, agerian uzten dute Euskal Herrian emakumeok jasaten dugun zapalkuntza eta desberdintasun egoera, emakume izateagatik erasotutak baikara oraindik». Zapalkuntza «sistematikoa» dela dio Bilguneak, «bizi dugun jendarte patriarkalek datorrena, zeinak sexuen arteko botere harreman mantentzen duen».

Indarkeria sexista («arazo sozial bat da») eta hori konpontzeko benetako erantzun soziala eta sexuen arteko botere harremanen iraultza behar dela diote. Horren aurrean, gaia «arazo isolatu eta emakume batzuei bakarrik eragiten diena bezala ez tratatzeko» eskatzen du Bilguneak. «Herriaren erantzuna beharrezkoa da», gaineratzen dute.

Erasotzaileen jarrerak jarraitzen duten bitartean, «dekurik ez dutela jendartearen» zehazten dute. «Argi izan behar dute ez direla onartuak izango ez kalean, ez lanean, ez eskolan ezta

egunerokotasunean egoten den edozein espaziotan ere». Erasotzaileen portaera onartzen ez dela azalerazteko jendarteak aplikatu beharreko urgentziako mekanismoa «bakterta soziala» dela diote, «hau da, guztion ardura». Bilguneak gaineratzen duenez, «ulertarazi behar zaie honelako pertsonek ez dutela tokirik jendarte parekide baten izenean mintzo bagara». Emakumeen kontrako indarkerian Euskal Herria ez dela salbuespena zehazten dute eta «herri bezala ditugun arazoei herritar guztien artean erantzuna ematea guztion ardura dela» diote.

Instituzioetatik «eraginkortasunik gabeko lege eta batzordeak sortu besterik ez da egiten; betearazteko aurrekonturik gabeko legeak eta erabaki ahalmunik gabeko batzordeak». Eman diren pausoei «emakumearen askatasuna baldintzatzen» dutela diote: «bizkartzainak, txip bidezko kontrola, ohituren aldaketa...».

«Behingoz eta betirako» instituzioetatik emakumeen kontrako indarkeriarekin amaituko duten neurri eraginkorrek eskatzen dituzte, «erasoak pairatutako emakumeek arreta integrala jaso dezaten». «Emakumeok gure bizitzaren jabe-goa duintasunez berreskuratzeko beharra dugu hemen eta orain. Aski dela argi eta ozen esateko ordua da», gaineratu dute Bilgune Feministatik.

RENAULT
Ocaña

TOLOSA IRAULI BEHARREAN

Zain egon zara, eta horra, Gero ere, Tolosan... AUTOAZOKA, AUTOBERRIren sekulako ibilgailu Azoka.

Urriaren 25etik 27ra aukera paregabea duzu bila ibili zaren ibilgailua aurkitzeko, gamarik ugariena baitauekagutu modelo matrikulatuetan, km-rik gabe, aldean eraman dezazun. Zatoz urriaren 25, 26 eta 27an, 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etatik 20:00etara.

AUTOAZOKA iraultza da.

AUTOAZOKAn ibilgailu bat erosit gero, hemen ikusten den TOMTOM nabigatzailea oparituko dizugu

AUTOAZOKA
AUTOBERRIEN

Urriaren 25, 26 eta 27an

200€*

*Iragargi hau aurkeztuz

AUTOBERRI
Anoeta Industrialdea, z/g Tel.: 943 65 28 43 TOLOSA

GIZARTEA ▶

Altzon eta Amezketan jubilatuen eguna egingo dute igandean

Bi herrietan egingo duten meza ondorengo bazkarirako izena bihar baino lehen eman behar da udaletxean



Duela bi urte egindako Jubilatuen Eguna, Altzon. HITZA

ERREDAKZIOA

Alegialdeko bi herritan jubilatuen eguna iganderako antolatu dute, Amezketan eta Altzon, hain zuzen. Bietan ere Meza Nagusia eta bazkaria izango dira nagusi, bertan sortuko den giro ona joango direnen eskuetan utziz. Bietan egingo diren bazkarietan izena emateko epea bihar bukatzen da, eta udaletxean eman behar da. Hauek dira udaletxeetako telefonoak: Altzokoa 943 652413, eta Amezketakoa, berriz, 943 653189.

Dantzak, bertsolariak, lagunarteko giroa eta musika ez dira faltako, ez Amezketan, ezta Altzon ere. Horregatik, udaletxeko ordezkariak adineko guztiak animatu nahi ditu eguna biribilagoa izateko. Azken batean, haiek izango dira igandeko protagonista nagusiak.

Amezketan, herrian bertan erroldatutakoei eta 60 urtetik gorakoei egin zaie deialdia.

Altzokoek herrian bertan bazkalduko dute, Arandia jate-txean, eta bertsolariak ere izango dira, trikitilariekin batera. Amezketako bazkarira animatzen direnak Abaltzisketako sagardotegira joango dira autobusez. Hauek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta jubilatuekin doazen zaintzaileek ere aukera izango dute bertara joateko.

Amezketan hainbat kontu

Bestalde, Amezketan, azaroaren 15ean, Kultur Asteko egitarauaren barne bertako jubilatuentzako merienda eskainiko dute, Bartolome Deunaren Jaientan egiten zen hamaiketakoaren ordezkia, hain zuzen. Ergoneko lokalean egingo dute; ho-

EGITARAUAK ▶

AMEZKETA

11:30. Meza Nagusia.
14:00. Bazkaria Zalbide sagardotegian (Abaltzisketa), bertsolari eta trikitilariekin alaituta.
▶ Bertara joateko eta bueltatzeko autobusa jarriko da.
Bazkarirako txartelaren balioa: 25 euro lagun bakoitzeko.
▶ Adinduen laguntzaile gisa joango direnek ere 25 euro ordainduko dute. Bihar da izena emateko azken eguna.

ALTZO

11:15. Meza Nagusia. Ondoren, dantzariak eta bertsolariak izango dira.
14:00. Bazkaria Arandia jate-txean egingo dute. Bertsolariak eta trikitilariak ere izango dira.
▶ izena udaletxean bihar baino lehenago eman behar da. Telefono zenbakia: 943 65 24 13.

netarako ere biharko izena ematea komeni da.

Mobila (segapotoa, telefonoa) nola erabiltzen den ikasteko ikastaroa ere antolatu dute adinduentzat, baina horretarako Kutxako bezeroa izan behar da derrigorrez, eta 3 erduko ikastaroa 3 euroren trukekoa izango da. Izena, udaletxean eman behar da, jubilatuen bazkarirako eta meriendarako izen-ematearekin batera.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA ▶

Irazuk finalurrerako txartela eskuratu du

Muñoak 3. egin zuen, eta beste emaitzen arabera finalerdietan egoteko aukerak ditu

ERREDAKZIOA

Irazu larrauldarrak larunbatean finalurrekoetarako zuzeneko txartela lortu zuen Azkoitian.

Azkoitiko Baztartxo aretoak «ongiotorri polita egin zion fase berriari. Aretoa bor-bor jarri zen saio hasieratik. 500 lagun inguru bildu ziren azkenean». Bertsolariak ere «serio» oholtzaratu ziren. 14tik 15 izatera pasa ziren bertso puntuagarriak; lanak gehitu ziren, eta lehia «estu» zetorren. Bertsozaleen elkarteko prentsa arduradunaren arabera, «zortziko handian Rezola eta Gurrutxagak osatu zuten, agian,

saiorik osoena». Baina, «Irazuren lana ere aipatzekoa izan zen».

«Maila oneko lanaldiak» entzun ziren, beraz, 8ko handian. 8ko txikiak «lan ederra» egin zuten denek. Irazu eta Rezolarena izan zen «aipagarriena».

Irunen Unai Muñoa aritu zen eta bertan hirugarren egin zuen: Uxue Alberdiren zat izan zen finalurrekoetarako txartela. Martin bigarrenak eta Muñoa hirugarrenak ere aukera handiak dituzte, beste final-urdenetan gertatzen dena ikusi behar baita. Larunbatean Amaia Agirre ariko da Eibarren, eta Bixente Gorostidi, Zumaian, igandean.

ALTZO ▶

Begiei buruzko hitzaldia izango da bihar

Bihar, Altzoko udaletxeko aretoan begiei buruzko hitzaldia izango da: *Begiak, Bizitzako leihoak*. 17:00etan hasiko da. Bertan, hainbat gaixotasunei aurrea hartzeko begiak ondo zaintzeak duen garrantziaz informazioa eta ebaketaren baten ondorengo zaintzaz ariko dira.

ALEGIA ▶

Bertso afaria azaroaren 9an izango da

Zazpi astoren ganean bertso eskolak bertso afaria antolatu du. Azaroak 9an izango da, Intxurre elkartearen, 15 euroren truke. Bertsolariak Iñigo Izagirre eta Julen Zulaika izango dira. Etxeberriaren, Ixkiñaren, Hilarion, Arrueneren, Kafe, Intxurre elkartearen edo Jubilatuenegon egongo dira izena emateko zerrendak. Azaroaren 6an bukatzen da izena emateko epea.

PILOTA ▶

Aurrera-Saiaren 9 garaipen asteburuan

Aste honetan, Aurrera-Saiaren pilota eskolakoek Gipuzkoako Txapelketan 11 partidatik (5 etxean eta 6 kanpoan) 9 irabazi dituzte: lau etxean (senior mailakoak). Gaur arte, «Ugaitz Renobalesen taldeak partidarik ez du galdu», pilota eskolako delegatuak esan bezala. Beraz, jardunaldi ona.

hilberria ▶

Patxi Landa Ugartemendia

JAUNA
-Golan bego-

Aitona, zerutik maitasunaz begira iguzu eta erakutsi diguzun bidea jarraitzen lagun iguzu.

Zure bilobak: Karmele eta Txixi, Sheila, Oscar, Leire eta Txus, Itziar eta Josu, Garbiñe eta Unai, Mikel, Aitor

TOLOSAN, 2007ko urriaren 23an



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENEN
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

OREXA ▶ KULTURA

Bihar zabalduko ditu ateak 'Hamabostaldi Kulturala 2007'k

Azaroaren 3an amaituko diren jardunaldietan hitzaldi, antzerki, musika, herri bazkari zein afariak egongo dira



Iragan urteko Hamabostaldi Kulturalan, gaztairu jatea antolatu zuten orexarrek. HITZA

ASIER IMAZ

Hamabostaldi Kulturala 2007 bihar hasiko da Orexan. Urteroko ohiturari jarraituz, adin guztietako jendartearentzat antolatutako azaroaren 3rte iraungo duten ekitaldi anitzak.

Hamabostaldia antolatzen ibili diren herritarrek, etxeko nahiz kanpoko jendearen parte-hartzea bultzatu nahi izan dute; «hamabostaldia orexa-

reri zuzendua dago batez ere, baina baita inguruko ere. Denei eskainitako egitarau hau, irekia eta parte-hartzea bilatzen duena» dela aipatu dute.

Ekitaldiei dagokienez, hitzaldi, herri bazkari zein afari eta musika emanaldiak izango dira bihar hasiko diren jardun-

naldien oinarriak. Hauekin batera, antzerki lanak ikusi eta taloak egiten ikasteko aukera ere egongo da.

Bihar 21:30ean zabalduko ditu ateak kulturaren jaiak Orexan. Almitza Segalaritzak Europar segalaritzak gaur egun duen osasuna aztertuko

du. Etzi berriz, atzerrira joandako euskaldunak izango dira hizpide Fermin Zelaieta, Joxe Mari Arretxea, Jesus Mari Jarajuria eta Juan Luis Altzugaraiak. Hauek, *Euskal Artzaiak Ameriketara* gaia jorratuko dute 21:30ean hasiko den hitzaldian.

Niko Etxarten Rocka

Hilaren 27an, larunbatean, lehenik taloa egiten ikasteko aukera egongo da herriko elkarrean eskainiko den ikastaroan. Ikasi eta eginarekin afari-merienda egin ostean, euskal kantari ospetsu bat ikusteko aukera egongo da.

Niko Etxartek, Altzurukuko (Xiberua) semeak, euskal kanta herrikoiak eta Rock and Roll-a uztartuko ditu. Larunbatean beraz, Dominika eta Niko Etxart & Robert Larrandabururen musika emanaldia egongo da 22:30ean. Hala eta guztiz ere, parranda handirik bota gabe etxera joatea komenigarria izango da, hurrengo egunean, XX. Uitzitza Orea ibilaldia egongo baita. Indarrak berriro berriz, 14:00etan herri bazkaria burutuko dute, Xapre eta Zarra trikitilarien kantu alaiak lagundurik.

Antzerkiak bere tartea, hilaren azken egunean eta azaroaren lehenean izango du. *Henry Bengoa Inventarium* eta *Inaxitoren Ametsak* antzezlanean. Azken hau, haurrentzat zuzendua joango da eta amaieran merienda egingo dute bertara gerturatu diren txikiek. Azaroaren 2an, ostiralean, Jon Maia bertsolari eta bidaiariak, *Apai-zac Obeto* ikus-entzunezkoa aurkeztuko du.

Hamabostaldi kulturalaren azken egunak irlandar kutsua izango du. Lehenik, 21:00etan, herri afari irlandarra ospatuko dute. Ondoren, Turlach taldeak uharterko musika doinuak eskainiko ditu. Amaitzeko, DJ Bull-en saioa egongo da.

EGITARAUA ▶

Orexako Hamabostaldi Kulturalan, kolore guztietako ekitaldiak aurkituko dituzte bertara gerturatzen den orok.

HILAK 24, BIHAR 21:30ean. Hitzaldia Almitza Segalaritzaren eskutik. *Segalaritzaren Europar gaia* aztertuko dute bertan.

HILAK 26, OSTIRALA 21:30ean. Hitzaldia. Gaia: *Euskal Artzainak Ameriketara*. Fermin Zelaieta, Joxe Mari Arretxea, Jesus Mari Jarajuria eta Juan Luis Altzugarai hizlariak.

HILAK 27, LARUNBATA 18:00etan. Talo Egitea herriko elkartean.

Ondoren. Afari-merienda. **22:30ean.** Musika emanaldia, Dominika eta Niko Etxart & Robert Larrandaburu-ren eskutik.

HILAK 28, IGANDEA Goizean. Uitzitza Orea ibilaldia. **14:00etan.** Herri bazkaria, Xapre eta Zarra trikitilariak alaiturik.

HILAK 31, ASTEAZKENA 22:30ean. *Henry Bengoa Inventarium* antzerki-lana.

AZAROAK 1, OSTEGUNA 16:30ean. *Inaxitoren Ametsak* antzezlana haurrentzat. **Ondoren.** Merienda.

AZAROAK 2, OSTIRALA 21:30ean. *Apai-zac Obeto* ikus-entzunezkoa. Jon Maia espediokiodeak aurkeztuko du ekitaldia.

AZAROAK 3, LARUNBATA 21:00ean. Herri afari irlandarra. Turlach taldearen emanaldiaz alaiturik. Hauek musika irlandarra joko dute. **Ondoren.** DJ Bull-en emanaldia goizalderarte.

ERREMONTEA ▶

Gaur eta etzi Galarretan partidak

Erremonte partidak jokatu dituzte eskualdeko hiru pilotarik gaur eta etzi Hernaniko (Gipuzkoa) Galarreta pilotalekuan. Altuna I.ak, Etxaberekin jokatu du gaur jaialdiko bigarren partida, Agirresarobe eta Eizagirreraren aurka. Altuna II.ak eta Patxi Zeberio berriz, ostegunean jokatu dituzte euren partidak. Bi egunetako jaialdiak, 16:00etan hasiko dira.

OREXA ▶

Erlaxazio tailerra bihar 18:00etan udaletxean

Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutzako ikasgelak sustatutako osasunari buruzko jardunaldietako hurrengo saioa bihar izango da 18:00etan Orexako udaletxeko ganbaran. Kasu honetan landuko den gaia *Erlaxazio-tailerra. Arnasten ikasiz, bizi luzatuko dugu* izango da.

LEABURU-TXARAMA ▶

Arrospide bigarren sailkatua

Anjel Arrospide, 1,20 minutuko atzerapenarekin, bigarren geratu zen asteburuan Altsasun (Nafarroa) jokatu zen Aizkolari Txapelduen Ligaren finalean. Aurtengo denboraldi osoan bezala, Floren Nazabal izan zen jauna eta jabe. Aizkolari bost ariketa egin behar izan zituzten finalean, nahiz eta hirugarren geratu zen Donato Larretxeak haseran estu hartu zuen. Laugarren berriz, Arria Va geratu zen.

IBARRA ▶

Ibarrak etxean berdinketa lortu du asteburuan

Ibarrak Aretto Futbol taldeak etxean berdinketa lortu zuen iragan larunbatean Irurtzungo (Nafarroa) Xota taldearen aurka. Ia norgehiagoko guztian zehar atzetik joan arren, partida amaieran aurretik jartzea lortu zuen. 20 segundoren faltan ordea, Xotak 6-6 partida berdintzea lortu zuen.

Alfabetikoa
Pausokak
Martin J. Iraola 2 - behea
TOLOSA • 943 67 24 48

• Ingelesa
First Certificate, advanced, Proficiency bezalako azterketa ofizialezko prestakuntza.

• Frantsesa, arabiera, italiara
Maila guztiak • Gaiturko irakasleak

• Erreformatu eskolak
Zientziak eta letrak *adin guztiak
Eguroeroko jarraipena *talde murriztuak

Tolosan, Berrobin eta Berastegin ematen ditugu eskolak.

TOLOSA ▶

Pernando Barrenaren hitzaldia, etzi

Etzi, ostegunean, iluntzeko 20:00etan Tolosako Kultur Etxean Fernando Barrenak hitzaldia emanen du. Bertaraten direnek, ezker aberzaleak azaldu duen bezala «bizi dugun egoera politiko zail eta nahasi baina interesgarriari buruz argibideak jasotzeko» aukera izango dute.

TOLOSA ▶

Deabruak Teilatuetan taldearen itzulera

Bihar Deabruak Teilatuetan taldeak bere azken lana aurkeztuko du: 1973. Aurkezpena Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean izango da, 11:00etan. Tolosako laukote honek 1995. urtean argitaratu zuen lehen diskoa, *Itsumutugor*. Ordunik beste 2 diska argitaratu ditu, azkenekoa 1998. urtean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitza autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurraremendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

Oinatz Bengoetxeak aise irabazi dio Mikel Goñi pilotariari

Leitzarrak final-laurdenetarako txartela lortu du eta Barriolaren aurka lehiatuko da ostiral gauean, Atano III.an



Atzoko norgehiagokan Oinatz Bengoetxeak 3 pilota besterik ez zituen galdu, Mikel Goñik, aldiz, 13. E. EZEIZA

NAIARA GARZIA

Oinatz Bengoetxeak herenegun aise irabazi zion Mikel Goñiri, eta final-laurdenetarako txartela lortu du. Abel Barriola leitzarra izanen du aurkari ostiralean Donostian jokatu den norgehiagokan

Leitzakoak uste baino errazago irabazi zion Oronozko pilotariari. «Uste baino errazago irabazi nuen. Lehenengo tantok gogorak izan ziren, baina bigarren zatian berak arazoak izan zituen. Hankan mina sentitu zuen eta nekatu egin zen. Hortik aurrera abantaila nahi-

ko handia hartu nuen eta lasai irabazi nion», dio Bengoetxea VI.ak.

Lehenengo tantoak gogorra-koak izan ziren, baina 2-2koaren ondoren leitzarrak markagailuan erraz egin zuen aurrea. 4-11koarekin sartu zen lehenengo aldiz Goñi aldagele-

tara, izterreko mina zela eta. Ezer larria ez zela zirudien arren, behin baino gehiagotan atsedenaldira eskatu zuen baina horrek ez zuen azkenean emaitzan inolako eraginik izan. Oronozkoak bi tanto eder egin zituen (7-18koa eta 8-18koa), baina ordurako bi pilotarien arteko alde nabarmena zen. Bengoetxea VI.ak ere tanto politak egin zituen, 4-9koa, esaterako (jokoaldia txokoan bukatu zuen) eta 4-10koa (bi pareta egin zituen, eta Mikel Goñi iritsi zen arren, Leitzakoak txokoan amaitu zuen). Mikel Goñik osotara 13 pilota txarrera bota zituen, Oinatz Bengoetxeak, aldiz, huts egite gutxi egin zituen, hiru pilota besterik ez baitzitu galdu.

Final-laurdenak

Igandeko garaipenarekin Bengoetxea VI.ak final-laurdenetarako txartela eskuratu du eta Barriolaren aurka ariko da ostiralean, Atano III.a Pilotalekuan, 22:00etan. «Abel Barriola oso gogorra da. Espezialista handienetakoa da erakutsi duen mailarekin. Lanak erdi eginak dauzkatz eta ea estutzen dudan».

Lau t'erdiko final-laurdenetako 3 norgehiagokak jada erabakita daude. Barriolak eta Bengoetxea VI.ak ostiralean jokatu dute, Donostian, Olaiola II.ak eta Agirrek larunbatean Balmasedan, eta Gonzalezek eta Martinezen Irujok egun berean Iruñean. Bestalde, atzo iluntzean erabaki zen Titin III.aren aurka zein ariko den, Xala edo Del Rey.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrerak Zangotzako Cantolagua taldeari irabazi dio larunbatean etxean jokatu den norgehiagokan

Jose Luis Arrizurieta entrenatzailea: «Orain arte izan dugun aurkaririk gogorrena izan da»

N. GARZIA

Aurrerak 3-2 irabazi zion larunbatean Zangotzako Cantolagua taldeari. Garaipen honekin beste 3 puntu eskuratu ditu Aurrerak, orotara 14 puntu lortuz.

Iker Bengoetxea, Txotxa eta Jon Arangoa izan ziren hiru golak sartu zituztenak. «Partida oso borrokatua izan zen. Aurreneko zatian Iker Bengoetxea kanporatu egin zuten. Hasieran galtzen hasi ginen, baina atsedenaldira 2-1koarekin joan ginen», dio Jose Luis Arri-

zurietak. «Bigarren zatian berdinketa iritsi zen eta 5 minutu falta zirela azkeneko gola sartu genuen. Halere beraiek ere irabazi zezaketek, guk zorte gehiago izan genuen. Orain arte izan dugun aurkaririk gogorrena izan da».

Lortu dituzten beste 3 puntu hauekin «bigarren edo hirugarren postuan» doazela azaldu du Arrizurieta. «Igo berri garen talde bat garenez, askok pentsatzen dute errazago irabaziko digutela». Oraingo jokatu dituzten partidak kontutan hartuta, «ongi» hasi direla

dio. «Lesioekin ere zortea izan dugu, eta badira hiru aste talde berarekin atera garea, lehenengo urtean ez bezala».

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Zer iritzi duzu Voith-Gorostidiren inguruan azken aste hauetan sortu diren zalantzez? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia, *Eztabaida* izeneko atalean.

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Egurra. Pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62
Autoa. Egoera oneko Peugeot 206 GTI-a, 16 balbulatakoa. 4 urte. 656 41 02 80.

GALDUTAKOAK
Betaurrekoak. Alegian emakumeen betaurreko batzuk galdu dira. Konpentsatuko da. 943 65 33 37.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Iñigo Gonzalez eta Iban Yurrita anoetarrek Indiako Kun mendira egindako espedizioa azalduko dute Anoetako udaletxean 19:00etan, Mendi Astearen barruan. Halaber, lehen laguntzak mendian ikastaroa Anoetako udaletxean izango da hilaren 26an 19:00etan doan eta euskaraz. Izen-ematea, udaletxean bertan egin daiteke.

Hernialde. VII. Rolleski Igoera Hernialdera urriaren 27an, era librean Belate edo klasikoan Bentatik. Izen-ematea, 685 776 504 telefono zenbakian (arratsaldez) edo alpinouzturre@begira.com.

Ikaztegia. Urriaren 27an 14:00etan bazkaria antolatuko dute. Ikaztegiatiko herri eskolan Petra Belamendiarekin ikasi dutenei egin zaie deialdia. Baina izena astelehena baino lehen eman behar da honako telefono zenbakian: 630 716 157 (Maria Eugenia).

Tolosa. Tolosaldeko AHT Gelditu Elkarrianak deituta eskualdeko bilera egingo dute 20:00etan Kultur Etxean.

Tolosa. Itziar Zubizarreta ipuin kontalariaren saioa izango da 18:00etan Anoetako Udal Liburutegian, LH1 eta LH2ko ikasleei zuzendua.

Tolosa. Indiako Gomukh GK Eren aldeko gala benefikoa hilaren 26an Fronton jatekoan. Afari berezia izango da 60 eurotan. Izen-ematea, 943 652941 telefono zenbakian.

Villabona. Euskal Herriko historiari buruzko ikastaroa antolatu du Aritzta kultur taldeak. Bost saio izango dira Mikel Sorrauren historialariarekin. Izen-ematea, 625 709366 edo 943-691411 edo aritzta@euskalduna.info.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Giro ezin hobea»

ZIZURKIL ▶ «Oso gustura» azaldu da Udala igandeko Azoka Bereziarekin; jende ugari izan zen bai azokako postuetan bai bazkari herrikoian

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Udaletik «oso gustura» azaldu dira Igandeko Azoka Berezia dela eta. «Jende ugari etorri zen eta giroa ezin hobea izan zen», azaldu du Ainhoa Larrea Kultura eta Euskara teknikariak. Iaz baino 20 postu gehiago izan ziren eta «hori nabaritu zen», dio Larreak. Frontoian ez ezik, postuak Teodoro Hernandezoren kalean ere bazeuden, baina aurrekoetan ez bezala, udaletxeraino iristen ziren elikagaien postuak. Bai artisauak bai baserritarrak gustura agertu ziren salmentekin.

Horrelako ekitaldietan gertatzen den bezala, eguraldiak zeresana izan zuen jendea Zizurkilera joateko garaian. Zizurkil Behetik Gora joateko doako autobusa «jende ugari» hartu zuen, eta hori «eskertzekoa» dela azaldu du Larrea, aparkaleku falta dela eta.

Bazkari herrikoiak ere azokak bezainbesteko arrakasta izan zuen. Horrela, Zimiteiuz gain mahai gehiago jarri zituzten plazan. Guztira 230 lagun inguruk izan ziren bazkaltzen.

Lesmes Mujiarentzat saria

Herriko postuen artean onenari saria banatu zion Udalak Iruña baserriko Lesmes Mujikari. Iaz ere irabazi zuen saria Mujikak. Bestalde, Zizurkil Barrena Beka Mainer Eizmendi zizurkildarrak garatuko du. Hiru hilabete izango ditu beka gauzatzeko eta bertan, emakume baserritarrekin elkarriketak egin ondoren, beraien egoeraren berri jasoko du.



Iruña baserriko Lesmes Mujikak postu onenaren saria jaso zuen. ANDER OTEZABAL



Jende ugari izan zen frontoian artisauak izan zuten postuetan. ANDER OTEZABAL

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...